

2.SEGMENTAZIOA

Gure produktua jende guztiarentzat zuzenduta egongo da baina batez ere gogoko duten jatetxe batean gosaldu, jan edo afaldu nahi eta gogoko duten gazte eta helduentzat, filtro batzuk aukeratzen haien posibilitateak eta nahiak kontuan hartuta

Segmentu askotara bideratuta egongo da, edonork erabili ahal duelako. Gainera, doainik erabili ahal denez aplikazioa (Premium zerbitzuya ere egonda), bezero mota guztiek erabiltzeko modukoa da; hau da, diru sarrerak ez dira garrantzitsuak eta denentzat zerbitzu berdina eskeiniko da.

Espezifikoki ez dugu segmentu desberdin bakoitzerako produktu edo zerbitzua sortuko. Aurretik azaldu dugun bezala, Premium zerbitzu bat egongo da astero, hilabetero (9,99 euro), 3 hilabetero (25 euro), 6 hilabetero (40 euro) edo urtero (60 euro) erabili ahal izateko, hobekuntzak izango dituena. Prezioak ez dira oso garestiak beraz segmentu desberdinetako bezeroak erabiltzeko aukera egongo da.

Honez gain, Aplikazio bat denez, munduko play/App store guztietan egongo da; hau da, mundu osoko jendea eskuratu ahal izango du aplikazio hau. Jende hau, edozein adinekoa eta edozein generotakoa izango da, baita mundu guztiarentzat ere. Era guztietako jatetxeak egongo dira, eta filtroak jendearen nahiaren arabera aukeratuko direnez, edonork izan ahal du aukera aplikazioa eskuratzeko

Noski, gure bezeroei, etxetik kanpo jatea gustatu behar zaie (jateko lekuak aurkitzeko aplikazioa delako) eta bizi estiloa ez du garrantzirik, edonork jan ahal duelako nahi duen lekuan, nahiz txiroa nahiz aberatsa izanda. Hari beretik, berdin du ze diru sarrerak dituzten bezeroek, aplikazioa jende guztiarentzako izango da eta (doainik edo Premium zerbitzua; azken hau diru gutxi balio du).

Esan beharra dago jendeak Apple Store edo Google Playen bidez, Online erosi ahal izango dituztela aplikazioa, egunero erabili ahal izateko, baina asteburuetan beste motako bezeroak izango ditu aplikazio honek jatera edo afaltzera joan ahal delako jendea nahi duen guztietan, baina noski, normalean asteburuetan egiten dira horrelako ekintzak (urtebetezere bat opatzeko, familiarekin kanpoan afaltzeko, lagunekin,...

Amaitzeko, ez da behar aplikazioa bai edo bai izatea, baina oso lagungarria bihur dezake jateko joan nahi duzun bakoitzan, errezago erreserbatu ahal duzulako gustuko duzun jatetxea filtro zehatz batzuk izanda (dirua, jatetxe mota, hurbiltasuna,...).